

BETI GAZTE

ALDIZKARIA



BAZKIDEEI ZUZENDUTAKO SEIHILEROKO ALDIZKARIA

Urtean bitan bidaliko den eta klubak egiten duenari buruzko informazioa zabaltzen duen aldizkaria duzue hau. WhatsApp bidez jasoko da, era digitalean. Herriko hainbat establezimendutan ere aurkitu ahal izanen duzue paperezko formatuan. Irakurri eta informatua egon zaitez, kontu interesgarriak agertuko dira eta!



EGUBERRI ETA URTE BERRI ON!

2015. urtean, 75. urteurrenaren aitzakiarekin, Beti Gaztek Olentzero ttiki bat aurkeztu zuen.

ELKARRIZKETATUA: **CARMELO MITXELENA**



25 URTE MASTEGIKO GOLAK OSPATZEN

25 urte bete ditu Mastegi futbol zelaia aurten.



JUBENILAK EUSKAL LIGAN!

Pasa den ekainaren 4ean Euskal Ligara igoera lortu zuten jubenilek. Zorionak!





HORRA GURE OLENTZERO PLAZARA HURBILDU ZEN BETI GAZTE OMENTZEKO

OLENTZERO ETA BETI GAZTEK LOTURA IZAN DUTE BETI

Erraza da Lesakan jaio den elkarte batentzat herriko kontuekin harremana izatea. Urtean zehar ospatzen diren tradizioen artean, Olentzero da errotuenetariko bat, lesakar guziok bizitzen duguna. Beti Gaztek bere sorkuntzatik izan du harremana Olentzerorekin. Urteetan zehar Olentzeroak egin, babestu, letrak gorde, taldeetan aurkeztu... Hainbat eratan parte hartu izan du Beti Gaztek Olentzero egunean. 1950. urtetik, lehiaketa martxan jarri zen geroztik, hainbat eta hainbat urtetan ibili da elkarteko ordezkarien bat epai-mahai gisa Olentzeroa baloratzen. Azken urteetan ere, lan horretan ibili izan da ordezkari aukeratutako bazkideren bat.



2015. urtean, 75. urteurrenaren aitzakiarekin, Beti Gaztek Olentzero ttiki bat aurkeztu zuen Lesakako plazan. Lehiaketa ikusten ari ziren, zein lehiaketan bertan parte hartua zuten gazte eta helduak elkarteak eginiko Olentzeroaren inguruan jarri eta, lehiaketaz kanpo, herriko plazan elkarrekin kantatu zuten.

Beti Gazteko Olentzeroa, egitez bukatzeaz, Arriako baratzean 2015. urtean. Apaingarri gisa Beti Gazteko ikurra, Xareko erraketa, Laxoako saskia, futboleko baloia, eskupilotako pilotak eta pala bat ditu, hamaiketakorako txistorrarekin batera.





Lesakan ohikoak diren "Hemen heldu gerade", "Olentzero buru haundia" eta "Olentzero joan zaigu" kantak kantatu ziren. Batzuk, Olentzeroa bizkarrean harturik, plaza erdian ateriaz parte hartu zuten; bertze batzuk aldiz, lotsatienak, kantua urrutitik lagundu zuten, plazaren ertzeko petrilaren gainetik. Handik edo hemendik, hurbil edo urrunagotik, plazaren gehiengoa kanta jarri zen eta Beti Gazte zale guzien artean, ingurua doinuz bete zen.

Arratsaldeko kalejiran ere parte hartzeko aukera izan zuen Beti Gazteko Olentzeroak. Izan ere, lehiaketan garaile suertatu zenak arazo teknikoak izan zituen ibilbidea bukatzeko. Beraz, Lesakako Musika Bandarekin batera, Beti Gazteko Olentzeroak bukatu zuen arratsaldeko kalejira, Plaza Zaharrean kantatzen amaituz.



25 URTE MASTEGIKO GOLAK OSPATZEN

Kasik hirurogei urtez Kristoenean ari ondotik, 1997. urtean Mastegiko ateak lehendabiziko aldiz zabaldu ziren. Kristoenea zelaiak zerbitzu handia eskaini zion Lesakari, batez ere futbolaz gozatzen zutenei, baina baldintza kaxkarrek, zuloak, lohia, putzuak... zelai berri bat eskatzen zuten Beti Gazterentzat, Lesakarentzat.

1997ko abuztuaren 9an ospatu zen Mastegi futbol zelai berriaren inaugurazio ekitaldi ofiziala. Hainbat ekintzek osatzen zuten programazioa. Horrela hedatu zen irekieraren notizia **Aitor Arotzenak** Egin Egunkarian idatzitako artikulua bidez:



“Mastegi Udal futbol zelai berria

Larunbat honetan, abuztuak 9, ekitaldi eder eta hunkigarri batean inauguratu zen Lesakako “Mastegi” udal futbol zelai berria. Ekitaldira, Lesakako eta inguruko herrietako udal ordezkariekin batera, Calixto Ayesa, Nafarroako Gobernuako ordezkaria, Nafarroa eta Gipuzkoako Futbol Federazioetako lehendakariak, Beti Gazte elkarteko zuzendaritza batzordea eta futbol zelaia egin duen enpresako ordezkariak izan ziren bertzeak bertze. Hauekin batera, Beti Gazteko zortzi futbol taldeak (benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak, Erregionaleko 2. mailako taldea, Preferentekoa eta neskak) zelairatu ziren. Futbol zelai berriaren ezaugarrien artean, gogoratu belar artifizialekoa dela, 100x60 metro neurtzen duela, 100 milioi inguruko aurrekontua izan duela eta 200 bat ikuslerendako harmaila estalia duela.

Xabier Portu, Lesakako ezpatadantzarien kapitainak, aureskua eskaini zuen. Era berean, Lesakako Abesbatzak, Beti Gazteren himnoa eta inaugurazio ekitaldiaren lehen zatiaren bukaeran “Agur jaunak” kantatu zuen. Futbol zelaiaren bedeinkazioa Maximo Hernandorena apezak eman zuen eta gero, minutuko isilunea gorde zen Beti Gazteko hildako jokalariei eta bazkideen omenez.

Solasaldien txanda Jose Luis Etxegarai, Lesakako alkateak zabaldu zuen. Bere erranetan, “kilometro eta ordu aunitz sartu dira proiektu honetan, baina azkenean merezi izan du”. Gero, Calixto Ayesa kontseilaria aritu zen solasean. Honelako futbol zelaia izateagatik lesakarrak zoriondu ondotik, “Belateko tunela zabaltzen denean, Nafarroako konpetizioetan aritzea espero dut” erran zuen. Ildo beretik joan ziren Nafarroako Futbol Federazioko lehendakariaren hitzak, izan ere, “Beti Gazterentzat ateak beti zabalik izanen direla” erran baitzuen. Gipuzkoako Federazioko lehendakariak, aldiz, Lesakako taldeak “jarrera eredugarria izan du beti, eta beraiek nahi duten bitartean, gure artean jokatzeko eragozpenik ez dute izango” adierazi zuen.

Azkenik, Salvador Iantzi, Beti Gazteko lehendakariak hartu zuen hitza. Bertze gauza batzuk gibeleratuz, Lesakak futbol zelaia egiteko egindako esfortzua, baita udalarena eta Nafarroako Gobernuarena eskertu zuen. Ondoren, orain dela 48 urteko "Txakain" aldizkarian agertutako pasarte bat irakurri zuen, non ordurako futbol zelai berri bat eskatzen zen "Kristo-Eneako sagardia edo patatalekuaren ordezt".

Inaugurazioaren lehen zati hau bukatzeko, ohorezko sarea egin zen. Hau ere nahiko berexia izan zen, Beti Gazten ari diren bi futbolari zaharrenek (Jabier Larrui eta Aitor Arotzena), bi gazteenei (8 urteko Ander Maia eta Aitor Bengoetxea) pasatu baitzieten baloia. Hauek bakoitza porteria banatara joan eta gol sartu zuten aldi berean, Mastegiko harmailak betetzen zituzten ikusleen txalo zaparrada jasoz.

Lehen zatia akautzerakoan, futbol partiduen txanda etorri zen eta hemen ere Beti Gazteko talde guziek parte hartzeko aukera izan zuten. Lehenik, benjamin, alebinak eta neskak euren arteko partidua jokatu zuten futbol-7ko zelaietan (zabalera markatuak daudenak). Futbol zelai osoa hartuz, infantilak aritu ziren Gure Txokoaren kontra (0-2), kadeteak Hondarribiaren kontra (0-0), jubenilak Baztanen kontra (0-0) eta erregionaleko taldea Gure Txokoaren aurka (0-0) jokatu zuten. Halere, ikusmin berezia sortu zuen Beti Gazteko talde nagusiak Osasuna Promesasen aurka jokatu behar zuen partidua. Hauek, ordu erdiko bi denbora jokatu zituzten eta, azken emaitza 1-1 izan zen, lesakarek uste zutena baino aunitzez hobea, kontuan hartzen badugu Iruñekoak 2.B mailan ari direla eta herrikoak Gipuzkoako Preferente mailan.

Partidu hau hasi baino lehen zozketaren sariak (4 sarrera Errealaren edozein partidu ikusteko eta 4 otordu Tolosako "Casa Nicolas" jatetxean; bi mountain-bike eta Koxkonta jatetxean lau otordu) atara ziren."

Mastegik 25 urte bete berri ditu orain. Hasierako obratik hainbat hobekuntza egin zaizkio urte hauetan guzietan; hauek dira aipagarrienak: 2012an belarra aldatu zitzaion zelaiari, arezkotik kautxozkora pasatu zen, orain lau aldagela ditu, bi beharrean, eta markagailu elektronikoa jarri zitzaion 2021. urteko apirilean. Orain 11 futbol talde ditugu martxan, Gipuzkoa zein Nafarroako federazioetan denetara 203 jokalarik dute fitxa.



EKITALDIZ BETERIKO

Azken urteetan bezala, aurten ere Beti Gazte Astea ekitaldiz beterikoa izan da. Maiatzaren 27an, ortziralean, eman zitzaion hasiera Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketako sari banaketarekin eta Paloma Ochoa margolariaren erakusketaren irekierarekin, aste osoan zehar bere margoak ikusgai izan zituen. Hurrengo egunean Beti Gazte Kantari taldeak emanaldia eskaini zuen herriko kaleetan barrena. Maiatzak 29, igandea, ekitaldiz josia egon zen. Goizeko hamaiketatik ordubatak bitarte haur eta gurasoentzako margo tailerra eskaini zen, Iciar Mikelpericenak zuzendua. Arratsaldeko 16:00etan Mahai Joko Txapelketa izan zen, mus, pintxazo eta xakeko kanporaketak. Honen ondotik, eguna amaitzeko, Mendiak 1976 dokumentala proiektatu zen Harriondoan; zuzendaria eta protagonisten solasaldiarekin bukatu zen ekitaldia.

Hurrengo astehondarreko agenda goitiraino beteta izan genuen baita ere. Ortziralean, ekainaren 3an, arratsaldeko 4etan oinarrizko futboleko txapelketak izan ziren Mastegin eta ilunabarrean Mahai Joko Txapelketako finalak jokatu ziren Beheko Plazan. Hurrengo egunean, ekainaren 4ean, Beti Gazte Eguna ospatu zen. Goizeko 8etan ohiko mendi irteera egin zen. 10:30etan jubenilen Euskal Ligara igoitzeko triangeluarra hasi zen Mastegin. Igoerako pasea lortu ondotik, txaranga eta erraldoien laguntzaz, Mastegitik ateratako afizio marea herri erdigunera hurbildu zen, aperitiboa hartu eta Alhondigan egin zen Beti Gazteko bazkari jendetsura; aurten 145 lagunekoa. Bazkarian bertan banatu ziren sokatira eta futbol talde nagusien erregulartasun sariak. Hauexek sariak jasotzeko aukeratuak:



BETI GAZTE ASTEA

Gizonezko tiralaririk erregularrena: Gerardo Telletxea

Emakumezko tiralaririk erregularrena: Irantzu Goienetxe

Emakumezko Ohorezko Errejonial Mailako jokalaririk erregularrena: Leire Rekalde

Gizonezko Ohorezko Jubenil Mailako jokalaririk erregularrena: Asier Taberna

Gizonezko Errejonial Mailako jokalaririk erregularrena: Joel Gil

3. Mailako jokalaririk erregularrena: Igor Gurrutxaga



Bazkariaren ondotik Beti Jauzi Muxiko dantza taldeak emanaldia eskaini zuen Plaza Zaharrean. Emanaldia amaitu ondotik, Jeiki Hadi plaza taldeak musikaz girotu zuen plaza Beti Gazte Eguneko ekitaldiei amaiera emanez. Igandea, ekainak 5, izan zen Beti Gazte Asteko azken eguna; hau ere ekitaldiz betea. Goizez "Elias Garralda" margo azkarreko lehiaketa eta haur margolarien jardunaldia izan ziren, Argazki Rallyarekin batera. Arratsaldean, margo azkarreko sari banaketak eta Beti Gazteko Lerro Dantza Taldearen emanaldiak ekitaldiz beteriko asteari amaiera borobila eman zieten.

GORA BETI GAZTE!



FUTBOLA

BETI GAZTEKO JUBENILEN TALDEA EUSKAL LIGARA!

Pasa den ekainaren 4ean, Beti Gazte aste erdi-erdian, gure jubenilek Ohorezko Erregional mailatik Euskal Ligara igotzea lortu zuten. Izan ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ohorezko Erregional ligetatik hiru irabazleak goitu ziren Euskal Ligara zuzenean, baina maiatza bukaeran talde bat gehiagorentzat lekua zegoela adierazi zuen Euskadiko Futbol Federazioak. Hiru ligetatik mailaz pasako zena ekainaren 4ean jokatu zen triangelukoan erabakiko zen. Zozketaz erabaki ziren partiduen ordenak eta zelaia.

Jendetza bildu ginen Mastegin herriko gaztetxoak babestuz eta hauek jokatuak bi partidua irabazi zituzten (3-0 Iru-Bat Santa Lucia eta 1-0 Loiola Indautxu) mailaz igotzea lortuz. Bigarren partiduko gola azken minutuetan zelaira ateri berria zen Luken Urtxegik sartu zuen boleaz, Mastegiko bihotzak saltoka jarritz. Herria besta batean zegoan, batez ere gazteak. Erraldoiak, txaranga, bazkaria... Beti Gazte Eguna eta jubenilen igoera elkartu zirelarik, Lesaka giro bizian murgildu zen.

ZORIONAK EKIPO!



MARKEL ETA KEMEN ERREALERA

Joan den denboraldi bukaeran jakinarazi zuen Errealak Markel Irazoki eta Kemen Mitxelena fitxatuko zituztela. 2022-2023 denboraldia Txuri-urdinekin hasi dute dagoeneko. Horrez gain, ekainean Torneo Internacional La Liga Promisesen debutatzeko aukera izan zuten biek. Aupa zuek!



ALEBINAK TXAPELDUN

Mutiko gazteek ekainean Lezkairu eta Beraunen jokatuak bi txapelketetan maila ezin hobea erakutsi dute. Segi bixkor!



FUTBOLA

2022-2023 denboraldia martxan dugu! Talde guziak ari dira dagoeneko ligetan puntuak irabazi eta kiroltasunez futboleantzen. Hauek dira Nafarroa, Gipuzkoa zein Euskadiko federazioetan inskribatutako taldeak:

GIZONEZKO OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Entrenatzaileak: Javier Escagües, Enddika Mendegia eta Fernando Susperregi. Jokalariak: Jonan Arbelaitz, Unai Arburua, Jonan Berrozpe, Iñigo Echegaray, Asier Larralde, Ibon Leiza, Mattin Lekuona, Jabier Maia, Aimar Otxoteko, Andoni Ochoteco, Unai Sagarzazu, Manex Ramos, Gorka Sanjurjo, Peio Tellechea, Julen Tellechea, Jon Zabala eta Iñigo Zozaya.



JUBENILEN EUSKAL LIGA

Entrenatzaileak: Miguel Txoperena eta Kotte lantzi. Jokalariak: Iker Aguirreche, Orti Arotzena, Markel Erkizia, Beñat Escudero, Aitor Galardi, Ion Galardi, Asier Halzuet, Iñaki Lazaro, Aritz Lizarrondo, Oier Michelena, Iban Olaetxea, Unax Perez, Manex Sarasola, Iñigo Txoperena, Migel Ubiria, Julen Urdangarin, Luken Urtxegi eta Josu Zubieta.



EMAKUMEZKO OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Entrenatzaileak: Mikel Aitor Flores eta Ainara Otxoteko. Jokalariak: Izaro Aldave, Alaia Alzugaray, Mayi Arriola, Paula Artieda, Nahia Garcia, Idoia Garde, Nahikari Goicoechea, Izaro Iparraguirre, Rakel Lasaga, Olaia Mendiburu, Garazi Mitxelena, Maider Olaciregui, Ane Ordoki, Irati Oyarzabal, Nerea Sanz, Ainara Semper, Olaia Telletxea eta Amaia Zapirain.



GIZONEZKOEN GORENGO KADETE MAILA

Entrenatzailea: Saul Rodriguez. Jokalariak: Unax Bereau, Beñat Criado, Unax Echarte, Unai Iñarrea, Eneko Irazoqui, Iker Irigoyen, Aimar Ochandorena, Urko Olaizola, Oier Ordoki, Enaitz Oscoz, Unax Oscoz, Ibon Ruiz, Oier Sarrias, Gaizka Sein, Hegoi Silveira, Mikel Urdangarin, Peru Urra, Beñat Zelaieta eta Eneko Zulaika.



EMAKUMEZKO KADETE-INFANTIL MAILA

Entrenatzailea: Jose Luis Alzugaray (Zikiro).
Jokalariak: Nerea Petrirena, Janire Ochandorena, Onintze Iparraguirre, Ane Etxegarai, Elixabet Tapia, Maitane Erquicia, Garazi Huici, Leire Ariztegi, Maddi Zubieta, Maddalen Arenas, Nahia Txoperena, Saioa Etxegarai, Irati Sevillano, Helene Alzuri, Olaia Echarte, Julene Damboriena, Zihara Taberna eta Haizea Arenas.



ALEBIN MAILA "A"

Entrenatzaileak: Aitor Arotzena eta Imanol Oyarzabal. Jokalariak: Aiert Arotzena, Elorri Arotzena, Telmo Badiola, Ibai Criado, Lizar Fernandez, Kemen Garro, Beñat Irazoqui, Ioritz Iriarte, Oneka Olaizola, Oihan Oyarzabal, Jon Rodriguez, Adur Sanchez, Arhane Silveira eta Eneko Valverde.



INFANTIL MAILA

Entrenatzailea: Julen Arakues. Jokalariak: Oier Aginagalde, Luken Ansalas, Unai Aranguren, Oier Arruabarrena, Ur Atondo, Oinatz Ayestaran, Ibai Azkarraga, Beñat Bereau, Alain Etxepare, Janitz Iriarte, Oier Laka, Xabier Leiza, Xuban Magaña, Akior Martinez, Aitor Michelena, Asier Mutuberria, Unai Olachea, Ekhi Rojo, Oier Santxez, Ulises Sarasua, Jon Semper, Oier Tapia, Beñat Telletxea eta Kemen Telletxea.



ALEBIN MAILA "B"

Entrenatzaileak: Iosu Zubieta eta Xabier Apezteguia. Jokalariak: Eneko Almandoz, Alazne Altxu, Jare Arburua, Iker Arotzena, Ander Etxegarai, Unax Gajate, Xuban Igoa, Aritz Iparraguirre, Oinatz Mariezkurrena, Urko Telletxea, Oier Txoperena, Eneko Urrusolo eta Unax Urtxegi.



ALEBIN MAILA "C"

Entrenatzaileak: Jose Luis Tapia eta Pello Lasa. Jokalariak: Iker Alzuri, Xabat Arburua, Julen Castro, Romeo De Caceres, Oier Deskarga, Enara Fernandez, Alain Gajate, Joritz Iguzkiagirre, Unai Iratzoki, Aiert Iriarte, Aratz Laka, Amets Lasa, Aner Mariezkurrena, Gorka Michelena, Eila Oskoz, Luka Rojo, Intza Sagardia, Ander Sarasola eta Ibai Tapia.



BENJAMIN MAILA "B"

Entrenatzaileak: German Deskarga eta Ignacio Garcia. Araia Alava, Eider Apeztegia, Julen Aranguren, Enara Ariztegi, Maitane Canal, Ugaitz Canal, Izei Deskarga, Harri Fernandez, Mikel Garcia, Ibai Iturbide, Oihan Iturbide, Ekai Marichalar, Lea Maritxalar, Irantzu Martinez, Kattalin Mindegia, Ane Ordoki, Olhain Plaza, Leire Rodriguez, Urko Tellechea eta Hegoi Zelaieta.



BENJAMIN MAILA "A"

Entrenatzaileak: Eneko Irazoqui, Enaitz Osoz eta Hegoi Silveira. Jokalariak: Jon Almandoz, Beñat Ansalas, Jon Aranguren, Oihan Aranguren, Eneit Elizalde, Markel Etxepare, Irene Garcia, Aiur Garro, Aiur Irazu, Oihan Leiza, Katixa Lopes Dos Santos, Amets Madariaga, Jon Madariaga, Ioritz Madariaga, Mattin Maritxalar, Iraia Petrikorena, Ibon Retegi, Markel Tellechea, Aritz Tellechea eta Miren Yanci.



PREBENJAMIN MAILA

Entrenatzailea: Ander Maia. Jokalariak: Beñat Almandoz, Nahia Alzuri, Andrei Artene, Mikel Eugi, Enai Iribarren, Oihan Lasa, Irai Maritxalar, Aitor Mutuberria, Eneritz Muñoa, Eneko Ochotorena, Nahia Ordoki, Aritz Ormaetxea, Lea Rojo, Ane Sainz, Ibai Telletxea eta Oinatz Vicente.

MENDIA

XV. LESAKAKO MENDI ITZULIA

Ekainaren 12an izan zen Lesakako mendi itzulia. 300 mendizalek parte hartu zuten Lesakako parajeak zeharkatzen zituzten bi ibilbide ezberdinetan. Motza 22,9 kilometro eta 1.415 metro desnibelekoa eta luzea 30,2 kilometro eta 1.825 metro desnibelekoa.



HILDAKO MENDIZALEEN OROIMENEZ IRTEERA AGIÑARA

45 mendizale hurbildu ziren Agiñara ekainaren 26ean hildako mendizaleen oroimenez. Dantza eta luntxaren tartean, ondorengo bertso hau kantatu zen:

*"Laurogeitabi urte lanean
buru belarri, jo ta ke,
kultura eta kirolaren alde
ene zenbat buru hauste.
Mendizaleen oroitzapenak
Agiñan urterik urte,
bihotz-bihotzez zorionak ta
mila esker Bet Gazte"*

Autorea: Patxiku Larretxea



SOKATIRA

Sokatirako neska-mutilak udan ere ez dute atsedenik hartu. Harat eta honat ibili dira erakustaldiak eskaintzen. Ekainean Amaiurren izan ziren, uztailean Iruñako Sanferminetan eta abuztuan Baionako bestetan.

Urrian denboraldi berriari ekin diote eta buru-belarri ari dira lehiaketarako prestatzen. Urtea bukatu bitarte Nafarroako 8x8 eta Euskal Herriko 4x4 txapelketetan parte hartuko dute hiru taldeek, neskak, mutilak eta mistoak, hain zuzen ere. "Gogo haundiz hasi gara berriz ere martxan eta gure esku dagoen guzia eginen dugu txapelak Lesakara ekartzeko".



PIRINIOTARA MENDI IRTEERA

23 lagun ibili ziren Piriniotan barrena uztailean Beti Gaztek antolatutako irteeran. Pont D'Espagne, Bachimaña mendi-aterpea eta Panticosako bainuetxea izan zen bi egunez egindako ibilbidea.



ABUZTUA ETA IRAILEAN HAINBAT IRTEERA INGURUKO MENDIETARA

Larun, Goizueta, Artikutza eta Ezkurrara mendi irteerak antolatu ziren abuztua eta iraila hilabeteetan. Guztira 60 mendizale inguruk parte hartu zuten.

MENDI IRTEERA ETA TXISTOR JATEA ELUTXAN

Abenduaren 18an, igandea, urtero antolatzen den moduan, Elutxara mendi irteera eta bertako txabolan txistor jatea antolatu zen. 35 pertsona inguru hurbildu ziren Elutxako txabolara eguraldi onaz gozatu eta txistor punta bat jatera. Batzuk oinez, bertze batzuk bizikletan eta gutti batzuk kotxean.



2023 MUNDIALA

2023ko martxoan Munduko Txapelketa jokatu da Ipar Irlandan. Esfortzu handiz entrenatzen ari dira Beti Gazteko tiralariak etxera urrezko dominen bat ekartzeko ilusio eta esperantzaz. Eman egurra!!

TXIRRINDULARITZA

SALVADOR YANCIREN OMENEZKO VII. MARTXA ZIKLOTURISTA

Eguraldi ederra izan zen pasatako maiatzaren 15ean bizikletan ibiltzeko. 103 txirrindularik parte hartu zuten Bidasoa, Malerreka, Baztan eta Ultzama eskualdeetatik pasatu zen martxan. 130 kilometroko ibilbidea izan zen, paisai zoragarriak ikusteko aukera ematen zuen.



LASTERKA

ZUBIGAINEKO KROS HERRIKOIA

Irailaren 3an III. Zubigaineko Krosa izan zen. Pittineko zubitik hasi eta herriari hainbat itzuli emanik 13 zubi gurutzatzen ziren ibilbidea egin zuten korrikalariak. Hauek izan ziren maila ezberdinetako irabazleak:

- 🏆 **Ttikiak:** Ibon Zelaieta eta Maddi Mutuberria
- 🏆 **Aurrebenjaminak:** Oskitz Errandonea eta Enara Ariztegi
- 🏆 **Benjaminak:** Aner Errandonea eta Joana Irazoki
- 🏆 **Alebinak:** Xabier Perez
- 🏆 **Infantilak:** Eñaut Arburua
- 🏆 **Beteranoak:** Gwendal Larque eta Cristina Arbues



BTT IBILALDIA

Irailaren 18an BTT ibilaldia izan zen, Lesakako plazatik atera eta mendi itzuli ederra eman ondotik, berriz ere plazara bueltan. 112 neska-mutilek bizikleta hartu eta itzulia egitera ausartu ziren, nahiz eta desnibel eta kilometro handikoa izan. Ibilbide motza 23,24 kilometro luze eta 770 metro desnibelekoa izan zen. Luzea berriz, 37,1 kilometro luze eta 1414 metroko desnibela.



Jesus Mari Sanjurjori tokatu zitzaion Katea Bikek parte-hartzaileen artean zozketatutako bizikleta.

LUCHONGO TRIATLOIAN BETI GAZTE PODIUMEAN

Jon Urrea eta Bixente Igarzabalek Beti Gazteren izenean Luchongo triatloian parte hartu zuten. Parte hartzea nahikoa ez bazen, biek podiumera igotzea lortu zuten. Zilarra Urrarentzat eta brontzea Igarzabalentzat. Zorionak bie!



AURTENGO IKASTURTEAN ERE JOSKINTZA TAILERRA!

Pasa den urtean joskintza tailerrak izan zuen arrakasta ikusirik, aurtengo kurtsorako jarraipena ematea aurreikusi zen. Irailean apuntatu zirenak buru-belarri dabilta baserritar arropak, manttalak eta sukaldeko batak jositzen. Orain, heldu den urte hasieran, berriz ere taldeak osatzeko aukera izanen da eta kurtsuan jende berria apuntatzeko aukera zabalduko da. Deialdia urtarrilean aterako dela aurreikusten da.

Momentu honetan 30 jostun baino gehiago dabilta trebatzen. Irakasle bezala Mary Yepes ari da denekin. Talde handiegia ez izateko eta denek ikasteko erraztasuna izan dezaten, hiru talde ezberdinetan antolatuak dabilta klaseak jasotzen: astelehen arratsalde, astearte goiz eta astearte arratsaldetan.

Ohiko klaseez gain, noizean behin joskintza solidaria egiteko ere elkartzen dira, irabazi asmorik gabeko elkarteei lagunduz. Pasa den urtean Lesakako zahar etxearekin kolaborazioa egin zuten, hainbat manta moldatuz. Irungo Harrera Sarearekin ere ibili ziren lanean. Afrikatik ekarritako telekin poltsoak egin eta jertseak apaintzea izan zuten lan nagusia. Hemendik aurrera hauekin lanean jarraitzea aurreikusten dute. Horrez gain, herriko errege magoen trajeak moldatzeko ere joskintza solidarioa antolatuko da Eguberri hauetan.

Dena ez da lana! Jositzen gustura aritzeko tenplea ez galtzeko, noizean behin elkarrekin afari goxo bat egiteko elkartzen dira. Azkeneko hau 2022 kurtsuari amaiera eman eta Santa Luzia, jostunen patroia, ospatzeko.



MARGO TAILERRA

Maiatzako larunbat goizetan banatutako bi saiotan margo tailerra antolatu zen elkartearen egoitzan. Iciar Mikelperizenak zuzendu zituen saiok eta 12 ikaslek koadro zoragarri bana margotu zituzten.



MAHAI JOKO TXAPELKETA

Mus, pintxazo eta xakeko txapelketak antolatu ziren maiatzeko bi asteburutan jokatzeko, kanporaketak lehendabizikoan eta finalak bigarrenetan. 40 jokalaririk parte hartu zuten txapelketan. Gonzalez anai-arrebak izan ziren txapelketa guziaren irabazleak. Izan ere, horrela gelditu zen podiuma:

Xake:

1. Xabi Gonzalez
2. Mattin Gonzalez

Mus:

1. Larraitx Gonzalez eta Nerea Baztarrika
2. Mikel Mutuberria eta Gorka Aranguren

Pintxazo:

1. Xabi Gonzalez
2. Mattin Gonzalez



PARTE HARTZE HANDIA EZAGUTU DEZAGUN LESAKA LEHIAKETAN

Hilabete batez galdera xorta baten erantzunetan pentsatzen ibili ondotik, Lesakako lehen hezkuntzako ikasleek herriari buruzko hainbat kontu bitxi landu dituzte. Apirilean burututako lanak maiatzeko sari banaketan eman zituzten fruituak. Zorionak txapeladunei!



SUKALDARITZA TAILERRA

Elbeteko Posadako sukaldaria den Belen Urrutiak bi saioko sukaldaritza tailerra eskaini zuen ekaineko lehendabiziko bi astelehenetan. Kurtsoari zegozkion plaza guztiak bete ziren eta ikasleek bi besta menu prestatzen ikasi zuten, baita menua ederki dastatu ere.



"ELIAS GARRALDA" MARGO AZKARREKO LEHIAKETA

Ekainaren 5ean, igandean, Beti Gazte Astearen programazio barrenean, izan zen "Elias Garralda" Margo Azkarreko lehiaketa. Aurtengoa IX. edizioa izan da eta parte hartze polita izan zuen. Goiz guzia margotzen ibili ondotik, guztira 19 heldu eta 7 hurrek aurkeztu zituzten beraien lanak. Gehienak Gipuzkoa aldetik etorritakoak izan ziren. Horrez gain, herrikoak eta Nafarroako bertze lekutatik hurbildutakoak ere baziren, baita urrutiagotik etorritakoren bat ere. Epai-mahai lanetan Paloma Ochoa eta Javier Igoa ibili ziren eta haurren sariak Lesakako Zerbitzuen elkarteak jarri zituen. Hauek izan ziren saridunak:

Fernando Ureta Castelo

Carlos Espega Alonso

Etxeko margolan onenaren saria:

🏆 Jaxinto Otxoteko Alzugarai

Haur margolarien jardunaldiko sarituak:

A mailan: Saioa Tapia Mutuberria

B mailan: Julen Castro Ordoqui

C mailan: Laiene Mutuberria Sanjurjo



2022 ARGAZKI RALLI ARRAKASTATSUA



Margo azkarreko lehiaketarekin batera, argazki ralli-a ere martxan jarri zen ekainaren 5ean, igande goizean. Hogeita bat argazkilarik parte-hartu zuten, guztira 84 argazki aurkeztuz. Ondorengoak izan ziren lehiaketako gaiak eta sarituak:

Sentsualitatea: Fernando Anza

Denboraren joana: Imanol Lorenzo

Etxe-animailak: Fernando Moreno

Geometria: Jose Ramon Varela

Bazkide onenaren bilduma: Fred Ramos

Bilduma onenaren saria: Imanol Lorenzo

Bilduma hoberenaren saria eskuratu duten argazkiak:



AJOARRIERO TXAPELKETA

Aurten ere feria bezperan urtero antolatzen dugun Ajoarriero Lehiaketa antolatu zen, azaroaren 23an. Aurtengoan elkarteak jarri zuen bakailoa, denek berdina izan zezaten. Horrez gain, bikote bakoitzari 10€-ko laguntza eman zitzaion gainontzeko osagaiak erosteko. Bederatzi bikotek parte hartu zuten, kategoriazko kazulak prestatu zituztelarik. Epai-mahai lanetan lau sukaldari profesional aritu ziren: Zalaineko Xabi Alzuri, Ardora Jatetxeko Roberto Loiola, Venta Peioko Julen Zubieta eta Aterpeko Joseba Zugarramurdi. Euskal Herri guzira gure lehiaketaz pendiente zegoenez, ETB-k berriemaile bat eta guzti bidali zuen gurera. Zubiondo, Bereau, Antoiu, Arrano, Kasino, Zantzonea, Irubide, Jubilatu, Linddurrenborda eta Koskilla ostatu/jatetxeek emandako eta aurkeztutako bikoteen kazulei esker, herri guziak ajoarrieroa dastatzeko aukera izan zuen. Hauexek lehiaketako irabazleak:

Basurde taldea:

Ander Goizueta eta Jozelo Goizueta

Arransurde taldea:

Javier Legasa eta Imanol Lopez

Bakailu Kuisine taldea:

Idoia Telletxea eta Paula Garcia



BETI GAZTE KANTARI

Azken hilabeteetan emanaldi sail bat eskaini ditu Beti Gazte Kantari taldeak. Maiatzaren 28an, Beti Gazte astean, Lesakako korua eta bortzirietako bertze abeslariekin batera, herri giro alaitu zuten ilunabar partean. Agerrako bestetatik deituta, abuztuan ere kantatzen ibili ziren. Irailaren 16 eta 17an Lesaka eta llekuetan irteerak izan zituzten. Hauetan ere gure taldekoez gain, Lesakako abesbatza zein bortzirietako bertze abeslariak kantatu zuten. Amaitzeko, Lurraren eguna eta Lesakako ferietan ere ikuskizuna eskaini zuten. Azken honetan 70 lagun elkartu ziren kantatzeko. Geldiezinak dira, segi horrela!



IPUIN LEHIAKETA

Irain Eskola eta Tantirumairu Ikastolarekin elkarlanean, urteroko bezala, ipuin lehiaketa antolatu da aurten ere. Pasa den azaroako hilabetean herriko haurrak buru-belarri ibili dira ipuinak idazten eta azkenik 102 ipuin aurkeztu dituzte lehiaketara 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleek. **Zorionak, lan bikaina egin duzue!** Sari banaketa abenduaren 21ean izan zen Beti Gazteko egoitzan eta Pello Añorga izan genuen ipuin kontalari gisa ekitaldia girotzen. Epai-mahaiak ez zuen erabaki erraza izan, ipuin guziak baitziren ederrak. Azkenik, hauek suertatu ziren irabazle:

A maila

Kattalin Mindegia Aranburu, "Ipotxak Eguberrietan" lanarekin

Hegoi Zelaieta Urriza, "Olentzeroren istripua" lanarekin

B maila

Ainhoa Goyeneche Zubieta, "Lauraren Gabona" lanarekin

Xiana Azkarraga Zubiri, "Enara, Naroa eta Eguberria" lanarekin

C maila

Elaia Mindegia Aranburu, "Eguberrietako salbatzaileak" lanarekin

Eneritz Etxepare Sein, "Errege Magoen bila" lanarekin

D maila

Ioritz Iriarte Azpiroz, "Ibai eta Olentzeroren bidaia" lanarekin

Eneko Urrusolo Elgorriaga, "Olentzero arratseko lapurrak" lanarekin



HITZALDIAK

Urte bukaerarako bi hitzaldi antolatu dira hurbil edo urrunagotik eragiten diguten gai pare bati buruz zerbait ikasi eta hausnartu dezagun. Alde batetik, Mikel Etxalar filosofoak liburutegian estoizismoari buruz hitz egin zuen abenduaren 10ean. Bertzetik, hilabete bereko 26an, Lorea Floresek, Hego Euskal Herriko Greepeaceko koordinatzaileak, abelzaintza industrialak ekartzen dituen ondorio larriei buruz hitz egin zigun.



LESAKAKO BITXIKERIAK

Lesakari buruz gehixeago jakin dezagun, lehiaketa honek zortzi galdera dantzan jarri ditu urria, azaroa eta abenduko lehen aste bakoitzean. Galdera batzuk nahiko zailak izan arren, bada erantzunak botatzera ausartu dena, baita asmatu dituen ere! Abenduaren 23an Plaza Zaharrean izan zen sari banaketa. Zorionak herriari buruz gehiago jakitearen alde lan egin duzuen guziei eta galderak erantzutera animatu zaretenei!



CARMELO MITXELENA, LAU ALDIZ MUNDUKO TXAPELDUNA SOKATIRAN

Beti Gazte: Noiztik zara tiralaria Beti Gazten?

CARMELO: Ni 17 urterekin hasi nintzen, 1991-1992 denboraldian. Taldea orduantxe sortu zen eta ni nintzen gazteena. Anaia hurrengo urtean hasi zen.

BG: Bertze talderen batekin tiratzen aritua zara?

C.: Euskal selekzioarekin ibilia naiz tiralari moduan, baina talde bezala, Beti Gazte kenduta, inorrek.

BG: Hasi zinetik gaur arte gelditu gabe?

C.: Taldea hamaika urtez desegin zen. Denak haurrak izaten hasi ginen eta lehiatzez utzi genuen. 2005etik 2015era bitarte Beti Gaztek ez zuen sokatirako talderik eduki.

BG: Zenbatero entrenatzen duzue?

C.: Entrenamendua sokarekin astean bi egunez. Fisikoa bertze pare bat egunez entrenatzen da astean, hau norberak bere kabuz egiten duen lana da.

BG: Ze ekarpen egiten dio sokatirak herriari?

C.: Mundialetan parte hartzeagatik, adibidez, Lesaka munduan ezagutzean lagundu du Beti Gazte sokatira taldeak. Lau alditan izan ginen munduko txapeldun: 1999an, 2000n bi aldiz eta 2004ean.

BG: Pisua eta baldintza fisikoa zaintzea zaila egiten da dugun mahai-inguruko bizitza sozialarekin bateratuz. Ongi moldatzen zarete taldea pisuan mantentzen?

C.: Garbi izan behar da denboraldi batean esfortzu hori egin behar dela. Argi dago zer den egin behar ez dugun guzia. Batzuetan kostatzen da, baina taldearen babesarekin errazago agoantatzen da. Sanferminetan denboraldiz kanpo gaudenez ez dugu arazorik izaten nahi dugun guzia irensteko, baina Eguberriekin "ojo"!

BG: Zer da taldekide izatetik gehien gustatzen zaizuna?

C.: Gainontzeko tiralariekin dugun lotura. Momentu onak, txarrak eta mota guzitakoak bizitzen ditugu, horregatik egiazko lagunak egiten dira sokatiran.



BG: Zer suposatzen du anaiarekin batera lehiatzeak? Baduzue pikerik?

C.: Entrenatzen dugunean badugu elkarren arteko bromazko pikea, baina harreman ona dugu. Lehiatzen biek alde berean tiratzen dugunez, ez dago arazorik.

BG: Zein da urte guzi hauetako oroitzapen ederrena?

C.: Lehenbiziko eta azkeneko mundialak irabazteko momentuekin gelditzen naiz. Ez genituen espero eta sorpresaz beteriko poztasun handia izan zen. Denen arteko besarkada eta oihua ditut burutan, aparteko momentua izan zen hori. Anaia eta biek elkarrekin ginen, irabazitako final guzietan bezala.

ELKARTEKO EKIPAMENDUA EDUKITZEA INTERESATZEN ZAIZU?

NEW

Iritsi da Beti Gazte-ren
"merchandising" berria!

Kamisetak, Motxilak, boligrafoak,
guardasolak, maillotak...

Hurbildu zaitez ikustera...
asteazkenetan 18:00etatik
19:30era, elkarteak Mastegi
futbol-zelai aurrean duen lokalean.



HURRENGO EKITALDIAK

BETI GAZTE ALDIZKARIA - ABENDUA 22'

URTARRILA

Sokatira jardunaldia Lesakan
San Antonera martxa arautua.
Mendaurrera irteera Sunbillatik

OTSAILA

Arbolaren eguna
Irteera Aizkolegira
Joskintza tailerra
Irteera Aialdera

MARTXOA

Elkarteko Batzar Nagusia
Lesakako IV. mendi lasterketa
Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketa
Sukaldaritza tailerra

LAGUNTZAILEAK



LESAKAKO ZERBITZUEN
ELKARTEA



Errekako nekazal etxea



sasoi
eraikuntzak



Transgoyeneche SL
TRANSFENNICA



Aldizkariko argazkiak: Aitor Arotzena, Pako Santxez, Argazki Rally-a, Xabier Ariztegi, Fred Ramos, Paola Oskoz, Amaia Telletxea eta hainbat bazkidek bidalitakoak.



1940. urtetik
Lesakako Kirol eta Kultur Elkartea



WWW.BETIGAZTE.NET



@BETIGAZTELESACA



@BETIGAZTELESACA



696 80 98 86



BETI GAZTE

EGIN ZAITEZ BAZKIDE! ¡HAZTE SOCIO!



Bete eskaera-inprimakia eta
elkarteari helarazi



Egoitzan, **astelehenetan** 18:30etatik 20:30etara

Mastegi pareko lokalean, **asteazkenetan**
18:00etatik 19:30etara



Web orrialdean inprimakia deskargatu, bete eta
betigazte@betigazte.net posta elektronikora bidali.



www.betigazte.net



Mugikorreko kamararekin enfokatu
Enfoca esto con la cámara de tu móvil

